BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

912

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 31koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren titularrari esleitutako eskumen eta egitekoak erabiltzeko organo arduraduna izendatzen duena.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak –dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu ziren eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu ziren– 4.1.j) artikuluan Lehendakaritzari esleitu dio genero-indarkeriaren biktimez arduratzeko politikak zuzendu eta koordinatzeko eskumena.

Aipatutako dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Lehendakaritzari atxiki zaio.

Urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuaren 5.1.f) artikuluan xedatutakoren arabera, Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren egitekoak izango dira indarrean dagoen antolamendu juridikoak Lehendakaritzari esleitzen dizkion gainerako egiteko guztiak, baldin eta beste organo bati berariaz esleitutakoak ez badira; beraz, Lehendakaritzaren egitura berria arautu arte, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Lehendakaritzaren egituran sartu da idazkaritza nagusi horren mendeko zuzendaritza gisa.

Hala ere, aldi baterako baino ez da egoera hori; izan ere, gobernu honen asmoa da Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak orain arte burututako eginkizunak Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak burutzea aurrerantzean. Lehendakaritzari eta Emakunderi dagozkien egitura organikoei buruzko dekretuak onartzen direnean gauzatuko da eginkizunen esleipen hori.

Abenduaren 18ko 299/2012 Dekretuaren bitartez, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria kargutik kentzea xedatu da –2012ko abenduaren 19tik aurrera ditu ondorioak kargutik kentzeak, egun horretan argitaratu baitzen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian– eta ez da titular berririk izendatu.

Urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren b) idatzi-zatian ezarritakoaren arabera, saileko zuzendaritzetako titularren postua hutsik badago edo titularra bera falta bada nahiz gaixorik badago, zuzendaritzei emandako eskumenak eta eginkizunak idazkaritza nagusi horietako zuzendariek beteko dituzte egoera horrek dirauen bitartean, egiturako hurrenkeraren arabera, eta ezin bada, hierarkikoki gainetik dagoen agintariak beteko ditu. Hala ere, zentzuzkoagoa dirudi, zuzendaritzak esleituta dituen eskumenak kontuan hartuta, lehenago aipatutako lehenengo xedapen gehigarri horren d) idatzi-zatia erabiltzea; idatzi-zati horretan esaten da aurreko arauak nahikoa ez diren kasuetan, administrazio-organoaren eskumenak gain-gainetik dagoen administrazio-organoak erabakitzen duenak beteko dituela.

Urtarrilaren 29ko 137/2013 Dekretuaren bitartez, Izaskun Landaida Larizgoitia Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendari izendatu zen; izendapen horrek 2013ko urtarrilaren 31tik aurrera ditu ondorioak, egun horretan argitaratu baitzen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Horren guztiaren ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Indarrean dagoen legediak Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren titularrari esleitutako eskumenak eta egitekoak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak bete ditzala.

Bigarrena.– Ebazpen honen berri eman bekie Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza osatzen duten pertsonei.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 31.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ,